



Tabakalera - Morpho 2024 DEIALDIAREN EBAZPENA

2023ko azaroaren 8an Tabakalera - Morpho 2024 egonaldi deialdia argitaratu zen Tabakaleraren webgunean, arte garaikidea departamenduaren bidez, Morphoren (Anberes) eta Tabakaleraren (Donostia) artean trukeko egonaldi artistiko bat egiteko helburuarekin.

Aipatutako oinarrien 4. atalean aurreikusitakoarekin bat etorritz, Morphok eta Tabakalerak batzorde mixto bat osatu zuten egiaztatutako gaitasun profesionala duten aditu independenteekin.

Batzordeak garaiz eta behar bezala aurkeztutako proiektuen balorazioa egin du, deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideekin bat etorritz, eta CICC/Tabakalerako zuzendari nagusiak, aipatutako batzordeak proposatuta, honako hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- I. eranskineko taulan zerrendatutako pertsona hautatzea, deialdiaren oinarrietan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Hautatutako proiektuari honakoa ematea:

- Joan-etorria aukeratutako pertsonarentzat, bere bizilekutik edo Morphon egonaldia hasi aurretik zegoen lekutik.
- Apartamentu guztiz ekipatua (sukaldea, bainugela eta logela, lan egiteko gune txiki batekin, Internetarako sarbidea wifi bidez).
- 20 m²-40 m²-ko (gutxi gorabehera) lan-eremu bat, oinarritzko altzariak, argiztapena, elektrizitatea eta wifia dituena.
- 2.000 euro gordin (1000 euro hilean) (zergak eta kenkariak barne hartu gabe), egonaldiak iraun arteko bizitza- eta lan-gastuak ordaintzeko konpentsazio gisa. Egokiena artistak Morphori faktura bat egin ahal izatea da; bestela, dieta gisa jasoko du zenbatekoa.
- Baliabide ekonomikoak, gehienez ere 500 eurokoak (kopuru horrek ez du barne hartzen proiektuaren jendaurreko aurkezpena nola egonaldian hala horren ondoren).
- Proiektua garatzeko laguntza kontzeptuala, eta, egoiliarak hala eskatuz gero, testuinguru bereko hainbat eragile eta proiektutan sartzeko laguntza.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, S.A.ren webgunean argitaratzea eta aukeratuei jakinaraztea.

Donostian, 2024ko otsailaren 2an

Edurne Ormazabal Azpiroz
Zuzendari nagusia



ANEXO I

IZENA	ABIZENAK
Sara	Ayesa Ruiz

TABAKALERA



**KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA**
—

**CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA**
—

**INTERNATIONAL
CENTRE FOR
CONTEMPORARY
CULTURE**
—

tabakalera.eus
—